

Nines Carrascalen hitzaldia

Antzerki eta dantza konpainiaen Ekoizpena eta banaketa

“KALEAK ESZENATOKI-ARTEENTZAT ESPAZIO BERRIAK”

“Egun on, eta eskerrik asko elkarteari jardunaldi hauetara gonbidatzeagatik. Esperientzia txikia daukat kaleko ikuskizunen banaketan; izatez, Producciones Imperdibles-en hiru ikuskizun baino ez ditut saldu, eta gero azalduko dut nola funtzionatu zuten ikuskizun horiek merkatuan. Horretara heldu aurretik, hausnarketa txiki bat egin nahiko nuke.

Azken 25 urteetan aldaketa asko eman dira kulturaren sektorean maila politiko, ekonomiko eta batez ere sozialean. Aldaketa horietako asko oso azkar gertatu dira, inprobisazio handiarekin, eta kasu askotan hausnarketa prozesu sakona falta izan da. Garai batean artista talde askok enpresa bihurtu behar izan zuten, inolako bokazio enpresarialik eduki gabe. Orain dela 23 urte antzokien kudeaketa pribatua zen; gaur egun aldiz, Administrazio publikoen esku daude, gehienbat. Azken 25 urteetan (1982tik gaur arte), azpiegitura eszeniko berriak zaharberritu eta eraikitzeko programa asko jarri dira martxan. Horren ondorioz, espazio eszenikoen kopurua asko hazi da, eta batez ere, Madril eta Bartzelonan polarizatuta zegoen deszentralizazio geografikoari bultzada handia eman zaio. 15 urte pasatu dira eta antzoki, auditorio, kultur etxe, erabilera askotarako espazio eta abarren sare bikaina daukagu. Horietako askok ez dute kudeaketarako talde profesionalik, ez dute aurrekonturik, ezta kudeaketa proiekturik, eta noski, ikus-entzulerik ere ez. Egia da arte eszenikoak lau hormen artea itxita geratu direla, hezkuntza-sistemak ez duela kontuan hartzen antzerkia curriculumeko gai bezala, eta jende gutxi joaten dela antzerkia ikustera eta horretaz gozatzerara. Eta hain zuzen ere, horregatik ari da kalea indarra hartzen; ikus-entzule gutxi izanda, programatzaileek estrategia aldatu behar izan dute eta kalea kulturaren baliabide bezala kontuan hartzen hasi. Kaleak aukera asko ematen ditu: eskailerak, plazak, fatxadak, basoak... orain arte, bertatik pasatzen ginen leku publiko soilak izan dira, baina une batez benetako espazio eszeniko bihurtu daitezke. “Kaleko arteak” terminoa onartuta dago dagoeneko, eta kalearen zentzurik zabalenean erabiltzen dugu. Kontzeptu plural eta elastikoa da. Arrisku bakarra da kontzeptu hori saskinaski bihurtzen dela. “In situ” eta “Ciudades que danzan” proiektuek, esaterako, hiriaren eta hiriko espazioaren ohiko kontzeptua berreskuratu nahi dute, musika, dantza eta antzerkia konbinatuz, eta beste balio bat emanez.

Banaketarako, kalea lasaialdi bat da. Merkatua aretoetako eta italiar erako ikuskizunez saturatuta dago. Sortzaile eta konpainia asko kalera irten dira espazioak ez daukalako mugarik, beste elementu sentsorial batzuk agertzen direlako eta kaleak aukera ematen duelako ikus-entzulearekin lotura estuago eta errealago bat izateko.

Producciones Imperdibles Andaluziako konpainia bat da; urte askotan aretoetan lan egin ondoren, ikus-entzulearen bila kalera irteteko eta beste ikuspegi bat eskaintzeko beharrezana sentitu dute. Bombonera, Mirando al cielo eta Caleidoscopio lanetan, aldatzen zena ikus-entzulearen ikuspegia zen. “La Bombonera” delakoan, 12 zuloan eta 5 metroko diametroko karpa bat egin zuten. Ikusleek zuloetatik burua sartzen zuten. Barruan dantzari bat zegoen, zortzi minutuz dantzan. Produkzioaren ikuspuntutik, arriskutsua zen; izan ere, merkatua oso homogeneoa da, eta ez oso ausarta; baina “desberdina” zen. Kanean jartzen zen lau orduz eta ondorengatik pasatzen zen oinezkoak burua sartu eta dantza-ikuskitzuna ikus zezakeen zortzi minutuz. Programatzaile askok oso irizpide ekonomisista zuten, oso jende gutxi ikusi ahal zuelako; hala ere, ondo saldu zen, oso efektu ona lortzen zelako. Bombonera-ren ostean, Mirando al cielo estreinatu zen; metakrilatozko eszenatoki garden bat. 36 pertsona sartzen ziren azpian, eta hamar pase egiten ziren egunean. Beraz, 360 pertsona egunean. Oso ondo saldu zen. Zergatik? Ikuskizunak ikus-entzulearekin funtzionatzen zuelako. Jendeak azpian sartu nahi zuen, eta begiratu. Esperientzia bakarra eta errepikaezina zen, eta inork ez zuen galdu nahi. Programatzailea berehala konturatzen da ikus-entzuleengan lortzen duen efektuaz eta horrek komunikabideetan sortzen duen oihartzunaz. Morboa zeukan eta ilada luzeak egiten ziren sartu ahal izateko. Azkenean barraka bihurtu ginen, adin guztietako jendearentzako erakargarri. Desberdintasuna bilatu behar da, merkatuan lekua egin eta ikus-entzulearengan sentsazio berezia sortu, pena merezi duena. Kalea iratzartzen ari da, ez da aretoaren luzapena. Ikus-entzulearengana hurbiltzeko ordua da, ikus-entzulea ukitzeko, ezustea emateko unea. Kudeaketa maila eta kaleko kulturaren maila hazten ari da eta bidea daukagu oraindik egiteko.